

## Logika

---

1. Paul C. Gilmore, *Logicism Renewed. Logical Foundations for Mathematics and Computer Science*. Wellesley, Massachusetts: ASL - AK Peters, Ltd. 2005, xvii + 230 or.

Gilmoren liburu honek logizismoaren pizkundera proposatzen digu. Matematikaren Filosofian baztertua zegoen Fregek eta Russellek proposatutako ikuspegia berri hahian dator Gilmore, bai Matematikarako bai Konputazio Zientziarako oinarri sendotzat Logika proposatuz. Ez edozein Logika noski. Hasierako kapituluak Logika Elementala aurkezten du, baina liburuaren zati handiena bere helbururako egokia den logika eraikitzen emango du: Tipoen Teoria Intentsionala. Honen terminoetan ondoren, errekurtsibitatea, zenbakien teoria eraikitzeko beharrezkoa dena, eta, Churchen Tipoen Teoriarekiko egokitzapena azaltzen ditu. Azkeneko bi kapituluak Matematikaren eta Konputazio Zientzien kontzeptuak Tipoen Teoria Intentsionalaren terminoetan definigarriak direla frogatzera zuzentzen ditu. Azken froga horrek osatzen du

logizismoaren tesi nagusia: Matematika Logikara erreduzigarria da erabiltzen dituen kontzeptuak oinarritzko kontzeptu logiko gutxiren bitartez defini daitezke. Honetaz gain, seigarren kapituluak zenbaki errealean teoria intuizionista bat garatzen du, goragoko ordenako zenbaki arruntan teoria intuizionista gara daitekeela frogatzeko. Matematikaren Filosofian azken aldi honetan logizismoaren berrikuspena edo ebaluaketa historikoaren inguruan ireki den ikuspegiaren ildotik doa Gilmoren liburu hau modu ortodoxoenean, *Principia Mathematica* lanak zituen helburu eta metodologia berdintsuak erabiliz: logika bat definitu, sistema axiomatiko bat, eta horren terminoetan, teorema frogatuz, Matematikaren berri eman.

Xabier Arrazola

2. Dov M. Gabbay, Sergei S. Goncharov & Michael Zakharyashev (arg.), *Mathematical Problems from Applied Logic I*. New York: Springer, 2006, xxviii + 348 or.

Novosibirskoko Sobolev Matematika Institututik zuzendutako bilduma matematiko baten laugarren liburua da hau. Liburu hauek aldi berean, bi edizioetan, errusieraz eta ingelesez ematen dira argitaratu. Liburu honetan logika aplikatuari heltzen zaio (ba ote da eta inoiz izan ote da aplikaziorik gabeko logikarik?), aplikazio esparru batzuk gogoan hartuz (informatika, adimen artifiziala, hizkuntza naturalaren semantika, zientzia kognitiboaren zati batzuk...), hor sor-

tzen diren arazo eta premia formalak logikaren barrutira eramateko. Liburuak daraman azpitolua oso argia da: *Logika berriak XXI. menderako*. Zazpi ataletan banatzen da edukia. Lehena deskripzioen logikari buruz Franz Baaderrek eta Ralf Küstersek egina da. Deskripzioak, hain zuzen, ezagutzaren errepresentazioan terminologia ezagupena base batean formalki egituratuta dagoenean aztertzen dira. Horretarako dauden logiketan inferentzia estandarra ondo arakatua dago. Inferen-

Oharra: **DZ** markak ILCLIko Dokumentazio Zentroan aurki daitekeela esan nahi du.

tzia modu ez-estandarrek ez, ordea. Horregatik, atal honen bi egileek inferentzia estandarra labor aurkeztu ondoren, bidea zabaldu beharra dagoela ondo justifikatzen dute, ezagupen «zaharra» berriro erabili nahi bada «berria» honako bi era hauetan lortzeko: batetik, adibideen orokortzetik kontzeptuak eraikitzeke eta, bestetik, antzeko kontzeptuen aldaketatik kontzeptu berriak bideratzeko. Inferentzia ez-estandarrek definitzen dira subsumitzaile komun txikiaren antzatzat, Abox—deskripzio logika bateko hizkuntzan egiten den asertzioen multzo finitua—bateko kontzeptu espezifikoen antzatzat eta deskripzio logiketan egiten den berridazketaren antzatzat (berridazketa minimoaren antzatzat), deskripzio zuhaitzak erabiliz, alderdi logiko nahiz konputazionala kontuan hartuta. Bigarren atala frogagarritasun logikei eskaini diete Lev Beklemishev eta Albert Visserrek. Gödelek zabaldu bidea modalizatu egin zen, eta halaxe aplikatzen dira logika horiek teoria formal axiomatikoaren azterketan, beste askoren artean Solovayen emaitzak bitarteko. Frogagarritasunaren arakatzeko logikoak indar berria hartu du azken hamabost urte hauetan Artemoven lanei esker «frogen logikan», eta berrikitan haren eskolakoan den Beklemisheven eskutik, frogagarritasun algebra markatuak (konsistentzia markak) erabiliz. Atal honetan bigarren bide hau hartzen da, eta emaitzekin batera problema irekiak planteatzen dira. Hirugarren atala logika epistemiko dinamiko berruzkoa da, Johan van Benthemek egin. Lehenik, logika epistemiko estandarra aurkezten da, eta gero hori

dinamikoa eta tenporala bihurtzen da. Bilduma argia egiten du van Benthemek eta baita problema irekiak planteatu ere. Beste hainbat alorretako logikekin lotura posibleak aipatzerakoan oso motz gertatzen da. Laugarren atala Barry Cooperrek idatzi du, konputagarritasunari eta emergentziari buruz. Gogoeta luzea egiten du, baina proposamenik ez Turingen araberrako konputagarritasun teoria leundu eta malgutzeko. Bosgarren atalean, John Crossleyk gogoeta labor samar bat egiten du gaur egungo logikagintzari buruz. Logikak zertarako, zein sistematatzen, zein eratako frogatan eta nolako oinarriekin? Logikaren historian beti errepikatu diren galderei Crossleyk erantzuteko bide bat proposatzen du, gogoan izanda gaur daukagun logiken neurrigabeko ugaltzea. Seigarren atala Wilfrid Hodgesek idatzia da, era oso bitxi bezain desegokian. Lehen zatian logika zientzia kognitiboarekin lotu nahi du, baina ez daki nola. Bigarrenean, Erdi Aroko arabiar semantikaren garrantziaz hitz egiten digu, baina interes historikoaz gain ez digu esaten zergatik den hori benetan gaur garrantzitsua. Azken atalean, Lawrence Mossek logika aplikatuaren aldeko agiri moduko bat plazaratzen du. Harrigarria da beti «aplikatua» izan den ezagutza arlo bati gaur berriro aplikatua deitzea, konputazioaren bidetik omen datozkiolako aplikazio berriak. Laburbilduz, ba, liburuaren atalik onenak lehen hirurak dira. Hori bai, azkena salbu beste guztietan erreferentzia ugari azaltzen dira.

*Jesus M. Larrazabal*

3. Wilfried Sieg; Richard Sommer & Carolyn Talcott (arg.), *Reflections on the Foundations of Mathematics. Essays in Honor of Solomon Feferman*. Natick, Massachusetts: ASL - AK Peters, Ltd. 2002, viii + 448 or.

Liburu honek 1998an Solomon Fefermanen omenez Stanforderko Unibertsitatean ospatu zen sinposioan aurkeztutako lanak eskaintzen ditu. Abenduaren

13an bukatu zen, Fefermanek 70 urte betetzen zituen egunean. Sinposioan parte hartu zutenen artean matematikari eta matematikaren filosofo handi asko

izan zen, nahiz eta guztien lanak ez diren argitara eman. Liburuak, beraz, sinposio bateko lanak jasotzen ditu. Lau zatitan banatua dago, Fefermanek bere bizitzan landu dituen gaien arabera: frogaren teoria eta analisia, logika eta konputazioa, teoria funtzionalak eta autofuntzionalak eta, azkenik, egungo pentsamendu logikoaren eta matematikoaren filosofia. Hogei artikulu dira guztira, eta egileen artean aipatutako ezagutza arloetan ezagun asko: J. van Benthem, W. Sieg, Ch. Parsons, P. Mancosu, A. Cantini, C.L. Talcott,

W.W. Tiet, H.M. Friedman, G. Mints, U. Kohlenbach, T. Fernando, J.E. Fenstad, J.V. Tucker, besteak beste. Ezin ditugu egile eta lan guztiak hemen aipatu, baina aipatutakoak kontuan izanik eta sinposioa noren omenez izan zen ikusita, ezin ukatu goiko arlo horietan egun egiten den goi mailako ikerketaren berri zabal ematen duela liburuak. Azkenik aipatu beharra dago antolatzaileen eta partehartzaileen artean Jon Barwise izan zela.

*Xabier Arrazola*

## Zientzia Kognitiboa

4. Koen Lamberts eta Robert L. Goldstone (arg.), *The handbook of cognition*. London: Sage Publications, 2005, xx + 455 or.

Psikologia kognitiboan gaur egun teoria eta ikerketa zertan diren erakustea du xede liburu honek. Ez du, ordea, psikologia kognitiborako sarrera moduko bat izan nahi. Irakurlea psikologia edo zientzia kognitiboan aski jantzia egotea eskatzen du. Kapituluak espezialistek idatziak dira eta maila aurreratu edo jasoa dute; horregatik, ez dituzte baztertzeko gai korapilatsu eta eztabaidatuak. Mundu osoan ezagunak diren 33 ikertzailek parte hartu dute lankide gisa Koen Lamberts eta Robert L. Goldstonek zuzendu duten argitalpenean. Eskuliburuak sei parte eta hemeretzi kapitulu ditu. Aurreneko lau parteak psikologia kognitiboan ohikoak diren gaiak dagozkie: pertzepzioa/arreta/ekintza (1. parte), ikaskuntza/oroimena (2. parte), hizkuntza (3. parte), arazoibidea/erabaki hartzea (4. parte). Bosgarren parte neuropsikologia kognitiboaz ari da eta hiru kapitulutan banatua dago: lehenengoak objektuei antzematearen eta ekintzaren neuropsikologia az-

tertzen du, bigarrenak ikaskuntzaren eta oroimenaren neuropsikologia eta hirugarrenak hizkuntzarena. Azkeneko parte, seigarrena, kognizioaren ereduak sortzeko lanari eskainia dago eta bi kapituluk osatzen dute: lehenengoa eredu matematikoez ari da eta bigarrena eredu ebaluazioaz. Antolakuntzaren aldetik, liburua ongi pentsatua dago eta aurkibide zabal bat ere badu. Kapitulu bakoitzak, bestalde, badu material bibliografikoen zerrenda bat irakurlea arloan egin diren beste lan batzuetara bideratzeko. Liburuak irakurle jantzi samarrak eskatzen dituela esan dugu goraxeago. Horrek ez du, ordea, esan nahi irakurleak liburuan lantzen diren gai guztietan jantzia izan behar duenik, ezta liburua kapitulu guztiak irakurtzeko egina dagoenik ere. Gai jakin batean interesatua dagoenak ez du arazorik izango horretaz esaten dena bereganatzeko.

*Pello Huizi*

5. Fernando Gabucio Cerezo (koord.), *Psicología del pensamiento*. Bartzelona, UOC. 2005, 339 or.

Psikologiak zientziaren bidea hartu eta ia berehala sortu zitzaizen zenbait

psikologori (Würzburgeko Eskolakoei, adibidez) pentsatze prozesuaren nondik

norakoa ezagutzeko jakin-mina. Jakin-min hori, ordea, ez zen hutsetik sortu, mendeetako tradizio filosofikoan baitzituen sustraiak. Pentsatze prozesuen ikerkuntzan gaur egun funtsezkoak diren hainbat kontzeptu filosofoen arteko eztabaidetan sortu ziren, eta landu. Honako hauek, besteak beste: kategoriazioa, dedukzioa, indukzioa, hipotesia, arrazoibidea, inferentzia. Liburu hone-tan, dena dela, ez da kontatzen, ez nola hasi ziren psikologoak pentsamendua aztertzen, ezta zer tradizio filosofiko zegoen ere psikologoek ikerketen atzetik. Pentsamenduaren arloan psikologoek egin dituzten ikerketen, ikerketa horietan egin dituzten aurkikuntzen eta aurkikuntza horiek oinarritzat hartuz eratu dituzten teoriak ikuspegi orokor bat ematea izan da liburuaren egileen asmoa. «Egileen asmoa» esan dut; izan ere, liburuak zazpi autore ditu. Gaiei dagokienez, pentsamenduaren psikologiak ari diren lanetan ohikoak direnak sartu

dira hemen, hala nola: kontzeptuak nola eratzen diren eta zer teoria dauden kontzeptu-eraketaz, jendea arrazoibide deduktiboan nola moldatzen den ikusteko erabili ohi diren lan motak eta jendearen erantzunak azaltzeko sortu diren teoria nagusiak, hipotesiak nola egiten diren eta nola egiaztatzen, arazo edo problemak nola interpretatzen ditugun eta zer metodo erabiltzen ditugun horiek ebazteko, nola hartzen ditugun erabakiak eta nola eta zergatik huts egin dezakegun geure probabilitate-judizioetan. Kapitulu banatan, honako beste gai hauek ere jorratzen dira liburuan: arrazoibide informala, pentsamendua testuinguruan kokatua, eta sormena. Merezi du aipatzea liburuaren osatzen duten lan gehienek azalpenen artean ariketak tartekatu dituztela. Bestalde, bibliografiari dagokionez, erreferentziez gainera oinarritzko bibliografia ere eskaintzen da.

*Pello Huizi*

## 6. Boris Cyrulnik, *De cuerpo y alma*. Bartzelona: Gedisa, 2007, 240 or.

Boris Cyrulnik neuropsikiatra ospetsuaren liburuak arrakasta handia izan dute bai Frantzian (frantsesez idazten du berak), bai Frantziatik kanpoan ere. Ezagunena, segur aski, *Les vilains petits canards* izango da, *Los patitos feos* gaztelaniazko itzulpenean. Liburu horren gaia «erresilientzia» delakoa da. Termino horrek, mekanikan, «metal batek talkak jasateko duen erresistentzia» adierazten du; psikologian, berriz, zauri eta mailatu psikologikoak jasan eta gainditzeko eta aurrera onik ateratzeko gaitasuna. Liburu horretan zera defendatzen zuen: umetan zorigabea izateak ez dakarrela nahitaez gero ere zorigabea izatea. *De cuerpo y alma* liburuaren —jatorrizko izenburua *De chair et d'âme* da— pentsamendu bakarraren aurkako manifestua dela esan daiteke —«pentsamendu nagiaz» hitz egiten du

Cyrulniketik—. Mendebaldeak, Grezia klasikotik hasita, gorputza eta arima bata bestearen aurka jarri izan ditu, biek elkar mespretxatzen dutela bihotz-bihotzez. Liburuaren sarreran autoreak kontatzen digu nolako esperientzia izan zuen neuropsikiatra gaztea zela, neurokirurgiako zentro batean aurrena eta zentro psikiatriko batean gero. Bietan, herren egiten omen zuten medikuek bezala erizainek ere, baina ez denek hanka beretik, neurologoek «neuro» aldera eta psikiatreek «psi» aldera egiten baitzuten herren. Liburu hau, aitortzen du autoreak, ez hanka batetik edo bestetik baizik bietatik herren eginez jende batzuek egin duten bidearen ondorio da. Liburuan helarazten digun mezua da aurrera ateratzea ez digutela galarazten ez gure geneek, ez jaiotzean egokitu zitzaigun inguruneak. Dena da posible.

Gene batek, adibidez, depresiorako bide eman badezake ere, determinatzaile bat da beste askoren artean, ez besterik: giro maitekor eta osasungarriak istant guztiez lagun diezaguke oreka berreskuratzen. Hitz batean, esperimentu zientifikoak euskarritzat dituela, arima badela erakusten digu autoreak. Eta gorputzetik ezin dela bereizi, eskarmentua bagenuen zerbait azken batean, behin baino

gehiagotan sufritu baititugu gorputzean zauri psikologiko baten ondorioak. Termino teknikoak direla eta, zenbaitetan ez da erraza liburua; hala ere, merezi du irakurtzea. Pentsalari aske baten lana da, baldintza fisiko, material eta biologikoetatik ateratzeko bidea erakusten diguna geure buruaren jabe izateko.

*Pello Huizi*

## Hizkuntza eta Komunikazioa

### 7. Aneta Pavlenko, *Emotions and Multilingualism*. New York: Cambridge University Press, 2005, xiv + 304 or.

Emozioen eta hizkuntzaren arteko harremanen arloan egin diren ikerketen ikuspegi zabala eskaintzen du *Emotions and Multilingualismek*. Liburua betidanik izan duen proiektuaren parte dela dio autoreak sarreraren. Zein da, ordea, betidaniko proiektu hori? Bada, honako hauxe: «hizkuntzalaritza ‘elebakarra’ berridaztea egiazko mundura egokitzeko» (XII. or.). Benetako mundua, izan ere, «nahasia, heteroglosikoa eta eleaniztuna» (*ibid.*) baita. Lan honetan, hizkuntzaren eta emozioen arteko loturaren ikerketa arlo horri, ez elebakarraren ikuspegitik, baizik eleaniztunarenetik begiratzen zaio eta, hori egiten denean, zer gertatzen den erakusten da. Liburua zortzi kapitulu osatzen dute. Lehenbiziko bi kapituluek honako ideia hau utzi nahi dute ongi finkaturik: eleaniztasunari buruzko ikerketek beharrezko dituztela emozioen ikerketak, eta alderantziz. Hurrengo hiru kapituluek zehatz-mehatz aztertzen dituzte hizkuntzaren mailak (hotsak, semantika eta kontzeptuak, diskurtsoa), emozioetan zerikusia duten eta emozioak adierazten dituzten aldetik. Emozioen neurofisiologiari eta emozioetan eragina duten alderdi sozialei eskaintzen zaizkie hurrengo bi kapituluak, gai ho-

riek hizkuntzarekin eta eleaniztasunarekin lotuz betiere. Azkeneko kapituluak, iradokizunak egiten ditu autoreak hizkuntzaren eta emozioen ikerkuntzan eleaniztasunaren ikuspegia sartzeko eta emozioen ikuspegia eleaniztasunaren ikerkuntzan. Liburua modu sistematiko eta eraginkorrean antolatua dago. Kapitulu bakoitzak honako eskema honi jarraitzen dio: aurrena zenbait jenderen azalpen subjektibo eta esperientzia pertsonalak, kapituluaren eztabaidatuko diren kontu nagusiak aurkezteko aukera ematen dutenak; ondoren, kapituluaren helburuak, dauden paradigma teorikoak, horietako bakoitzaren aldeko frogak nagusiak, ikerkuntzan aurkitutako faktore aipagarriak; eta, azkenik, egin diren aurkikuntzen eta horien inplikazioen laburpena eta geroko ikerketetarako iradokizunak. Hamarkada batzuetatik honako ikerketen zerrendak ere agertzen dira, taulatan, kapitulu bakoitzean. Bukatzeke, merezi du aipatzea eranskin batean web bidez erantzuteko pentsatua dagoen galdeketa bat eskaintzen zaigula; horren izena: «Bilingualism and emotions web-questionnaire».

*Pello Huizi*

8. Martina Faller, *Semantics and pragmatics of evidentials in Cuzco Quechua* (a dissertation). June 2002, 286 or.

<http://www.mpi.nl/world/persons/private/marfal/Thesis.pdf>

Ebidentzialitatearen semantika eta pragmatika aztertzen du Fallerrek lan honetan, cuzco kitxuako hiru markatzaile ebidentzial zehazki aztertuz: *-mi* zuzena, *-chá* ustezkoa eta *-si* *reportativea*. Hiztunak hizketa ekintza bat egiteko dituen oinarri motak gramatikalki kodetzea da, haren ustez, ebidentzialitatea. Hiru enklitikoak hizketa ekintzen teoriaren ikuspegitik aztertzea proposatzen du. Laburpentxo eta eskerren atala eman ondoan, zazpi kapitulutan banatzen du egitekoa. 1. kapituluan, sarrera eta hipotesi nagusiak ematen ditu, honako gai hauek aipatuz: noiz hasi ziren ebentzialitatea aztertzen, galdera nagusiak, hizkuntzen arteko aldeak ebidentzialitateari dagokionez, ebidentzial motak/hierarkiak, ebidentzialitatea eta modalitate epistemikoa... 2. kapituluan, sistema ebidentzialen barneko egitura aztertzen du. Bi eratan egituratzea proposatu izan da: hierarkia gisa eta eskala gisa. Fallerentzat egokiagoa da eskala gisa egituratzea. Sistema ebidentzialen adibideak ematen ditu: turkierakoa, tuyucakoa eta kashayakoa. 3. kapituluan, ebidentzialitatearen eta modalitate epistemikoaren kategoriak mugatzeaz ari da. Kategorria desberdinak dira egilearentzat, baina

badute harremana; gainjartze harremana, hain zuzen. 4. kapituluan, cuzco kitxuako *-mi* enklitiko ebidentzialaren esanahia deskribatu eta aztertzen du. Haren ustez, *-mik* adierazten du litezkeen oinarri onenak dituela hiztunak baieztapen bat egiteko. Okerra iruditzen zaio *-mik* balio modala kodetzen duen ondorioa. Hizketa ekintzaren teoriaren arabera aztertzen du. 5. kapituluan, *-chá* ustezko enklitiko eta *-si* *reportative* enklitikoak aztertzen ditu. Dio *-chá* erabiltzen dela adierazteko hiztunak ez dakiela txertatutako proposizioa egia den edo ez, baina pentsatzen duela badela horretarako aukera, bere arrazoitzean oinarrituta. Balio ebidentziala eta modal epistemikoa, biak kodetzen ditu. *-si*, berriz, erabiltzen da hiztuna beste batengandik jasotako informazioa kontatzen ari denean, haren azterketaren arabera; ez du kodetzen balio modala. 6. kapituluan azaltzen du zergatik aztertu dituen ilokuziozko modifikatzaile gisa hiru markatzaileak. Nuytsek egindako bereizketara jotzen du: erabilera deskriptiboa vs. m-performatiboa. 7. kapituluan, azkenik, lan guztia laburtzen du, puntu nagusiak aipatuz.

Larraitz Zubeldia

9. David L. Sam eta John W. Berry (arg.), *The Cambridge handbook of acculturation psychology*. Cambridge: Cambridge University Press, 2006, xxiii + 551 or.

Harluxet Fundazioaren *Hiztegi Entziklopedikoan* honela definitzen da akulturazioa: «Kultura batek, beste kultura batekin harremanetan jartzean, berezko ezaugarriak galtzea». *Handbook* honen argitaratzaileentzat, «akulturazio» kontzeptuak badirudi ez duela horrelako esanahi negatiborik. Horientzat, eta oro har arlo honetan lanean ari direnentzat,

akulturazioak honako esanahi hau du: «kulturarteko bat-egite edo topaketa eta horren ondorio diren aldaketak» (1. or.). Kultura ezberdinetako jendeak elkarrekin harremanetan jartzea ez da azken aldi hauetako kontua. Historia idatzia bezain zaharra da. Era askotako arrazoiek bultzatu izan dute gizadia munduan zehar ibiltzera: bazka berdeagoak aurkitu nahia,

gera nahiz hondamenetik ihes egitea, salerosian aritzea, konkistatu eta kolonizatzea, eta abar. Akulturazioa aspaldi hasi zen, beraz; hala ere, azken hamarkada hauek arte ez da aparteko interesik izan psikologian gai hori ikergaitzat hartzeko. Beste gai batzuekin batera akulturazioa ere kontuan hartzen duten liburu eta artikuluak 1980ko eta 1990eko hamarkadetan hasi ziren agertzen; geroztik, gora egin du etengabe horrelako argitalpenen kopuruak. Dena dela, eskuliburu honen argitaratzaileek diotenez, oso bakanak dira akulturazioaren psikologiari erabat eskaintako testuliburuak. Hutsune hori betetzera dator *Handbook* hau. Liburua lau partetan banatua dago. Lehenengoan, akulturazioaren arloan dauden teoria eta kontzeptu nagusien berri ematen da batez ere, baina ikerketa diseinua-rekin eta metodologiarekin zerikusia duten arazoak ere aurkezten dira. Bigarren parte osatzen duten kapituluek beste kultura batera jo duten hainbat talde

espezifikoren ikerketetan egin diren aurkikuntza batzuk eskaintzen dituzte. Etorrinak, iheslariak eta herri indigenak dira talde berezi horietako batzuk. Hirugarren partean, kanpotik etorritakoen kokaleku bihurtu diren hainbat gizartetan egindako ikerketen aurkikuntzak azaltzen dira. Kokaleku horien artean, Australia, Kanada, Amerikako Estatu Batuak eta Europako gizarteak aipa daitezke. Laugarren parte, azkenik, aplikazioei dagokie. Teoria eta aurkikuntza enpirikoak oinarritzat hartuz, askotariko gizarteetan akulturazioak sor ditzakeen hainbat problema eztabaidatzen dira: haur eta emakume immigranteen akulturazioa, akulturazioa eta eskola, hizkuntzaren arazoa, akulturazioa eta osasuna, akulturazioa eta lan merkatua eta abar. Bukatzeko esan beharra dago liburu hau ezinbestekoa dela akulturazioaren gaian interesa duen ororentzat.

*Pello Huizi*

## Zientziaren eta Filosofiaren Historia

10. Richard M. Gale, *The Philosophy of William James. An Introduction*. Cambridge: Cambridge University Press, 2005, x + 246 or.

Pragmatismoaren sortzaile izan zen William James (1842-1910) filosofoaren ekarpenen ildo nagusiak aurkezten dira liburu honetan, alde batera lagata haren lana psikologian. Filosofia analitikoak bere sorreran egin zuen eran, pragmatismoak ere gogor egiten dio hasieratik hemeretzigarren mendearen bukaerako idealismo britainiarrari, batez ere Bradleyk eta Greenek defenditzen zituzten modukoei. Baina, aldi berean pragmatismoak sakon kritikatu du Cliffordek eta Huxleyek defenditzen zuten epistemologia zientifizista. Esfortzu horretarako ongi kokatua zegoen medikuntzan fisiologiako irakasle eta, gero, psikologiako irakasle izan zen James. Liburuaren egileak ikuspuntu berezi batetik aurkezten du Jamesen filo-

sofia. Alderdi epistemologiko, moral eta mistikoak bildu egin nahi ditu, azken aspektu honi berebiziko garrantzia emanez. Enpirismo erradikalaren alde eginenez, esperientziaren printzipioa erabiliz sustraitu zuen Jamesek bere etika naturalista eta utilitarista berezia, hedonismotik aparte, «eskaera» betetzeko bidean indibiduen aniztasuna kontuan hartzerakoan justizia balio zentral kontsideratuz, gero aukerak definitu ahal izateko. Lehen zatiko lehen bost kapituluetan, egileak Jamesen etikaren eta uste eta ekintzaren arteko erlazioen teoriak zer-nolakoak diren azaltzen du. Horixe da liburuaren zatirik onena. Seigarren kapituluaren egiari buruzko teoriak dihardu, Jamesen epistemologian gairik ezagunena eta manipulatuena,

zalantzarik gabe, *Pragmatism* 1907an argitara eman zuenetik (gogoratu Moore eta Russellen kritika gogorak). Zazpigarren kapitulua, laburra izan arren, oso argia da: metafisikari aurka eginda, erlatibismo ontologikoa defenditu zuen Jamesek. Liburuaren bigarren zatiko lau kapituluetan autoreak James «mistiko pasibo» gisa aurkezten du. Hiru kapitulu ematen ditu horretarako, erlijioaren filosofian *The Varieties of Religious Experience* 1902an argitaratu zuenetik pragmatismoaren barruan, kontraesan bez-

teta izan arren, erlijio sinesteei leku bat eskaini nahian egindakoa azalduz, erlijio esperientziaren fenomenologiaren bidean. Azken kapitulua egileak Jamesen filosofiari buruz duen ikuspegiaren laburpena da. Tentsio, barne gatazka, estutasun logiko eta osotasun falta seinalatzen ditu Galek, filosofiaren arlo osoan falta zaion batasuna erlatibismo ontologikoak eta mistikaren defentsak arintzen diola azpimarratuz.

*Jesus M. Larrazabal*

11. Alan D. Schrift, *Twentieth-Century French Philosophy. Key Themes and Thinkers*. Oxford: Blackwell, 2006, xxvi +300 or.

Liburu honen balioa honako hauxe da: hogeigarren mendean Frantzian egindako filosofiaren zati nagusia —akademikoki nagusia— Frantziatik kanpoko irakurleei ingelesez aurkeztea, azken aldian filosofo frantses batzuek (Ricoeur, Foucault, Deleuze, Derrida, Lyotard, Badiou...) mundu akademiko anglofonoan hartu duten garrantziaz baliatuz. Liburuak bi zati ditu. Hamahirugarren mendean Parisko unibertsitatea sortu zenetik hogeigarren mendearen bukaera arteko kronologia labur bat egin ondoren, lehen zatiak sei kapitulu ditu. Lehenbizikoan azken mende horretako lehen bi hamarkaden berri ematen da, egileak espiritualismo esaten dion tradizioa seinalatuz: Ravaisson, Renouvier, Boutroux, Lachelier eta, guztien gainetik, Bergson eta horrekin konfrontazioan Brunschvicg neokantiarra. Bigarren kapituluan fenomenologiaren indartzearen arrazoiak azaltzen dira, bai hegeldarren bai husserldarren jarraitzaileen aldetik (apenas Heideggerren bidetik). Fenomenologiak zabaldu zion esparrua existentzialismoari, eta horixe da hirugarren kapituluan lantzen dena, Marcel, Merleau-Ponty eta Sartrearen subjektuaren filosofiak laburki aztertuz. Fenomenologiari aurre egin zion kon-

tzeptuaren filosofia neorrazionalista ez dago behar bezala adierazia, Bachelard, Cavailles eta Canguilhem justu-justu aipatu besterik ez baitira egiten, azken horien ildoaren sortzaile izan ziren Poincaré eta Couturat aintzat hartu gabe. Neotomisten lana ere ez dago ondo jaso: Gilson eta Maritain apenas azaltzen diren. Laugarren kapitulua estrukturalismoari buruzkoa da. Azpian «susmoaren» hiru maisuak daude: Marx, Nietzsche eta Freud. Gainean, hainbat arlotako ikerlariak: Lévi-Strauss, Barthes, Lacan, Althusser, Bourbaki taldea, Jakobsonen (eta, jakina, de Saussureren) eraginpeko hizkuntzalariak... Hurrengo kapitulua post-estrukturalismoari eskaintzen zaio, 1966tik mende amaiera arte. Hemen denetik dago: dekonstrukzionistak, post-modernistak, historizistak, espiritualistak, situazionistak, neomarxistak eta abar. Izenak izenen gainean, autorea ez da gauza izan liburuan analisi zehatza egiteko. Nahiago izan du nahasian aipatu Ricoeur, Levinas eta Jankélévitch alde batetik, eta, bestetik, Foucault, Deleuze, Derrida eta Lyotard. Seigarren kapituluan ondorioak ateratzen saiatzen da egilea, baina ezinezkoa zaio, azterketa hain era multiformean eginda. Bistan geratzen da Frantzian joan den



mendearen azken hogeita bost urteetan landutako filosofia analitikoa, batez ere Wittgensteinen, Russellen eta filosofo logikarien eraginez —Bouveresse lekuko—, ez duela aintzat ere hartu liburuaren autoreak. Liburuaren bigarren zatian hogeigarren mendeko filosofo (*outsider* batzuk ere bai tartean) frantses nagusi askoren biografia laburrak es-

kaintzen dira. Bi eranskin ditu liburuak: bata kultura akademiko frantsesaren egiturari buruzkoa eta bestea filosofia frantsesaren ingelesezko itzulpeni buruzkoa. Eta, bukatzeko, indizearen aurretik, egileak informazioa biltzeko erabili dituen iturri bibliografikoen zerrenda dator.

*Jesus M. Larrazabal*

## Filosofia

12. Barry Smith (arg.), *John Searle*. Cambridge: Cambridge University Press, 2003, 291 + xi or.

John R. Searle (Denverren, AEB, 1932an jaioa) filosofoa idazle oparoa da. Oparoa eta eragin handikoa filosofiaren hainbat esparrutan. Gaur egungo filosofo analitikorik ezagunenetakoa, bai tradizio anglosaxoi horretatik kanpora, baita filosofiatik haragoko diziplinetan ere; hala nola, hizkuntzalaritzan (semantikan eta pragmatikan, bereziki), informatika eta adimen artifizialean, psikologian, gizarte eta politika zientzietan... Horregatik, ez da harritzekoa Searleren lanari buruzko saiakera eta liburuak ere ugari izatea. Cambridgeko *Contemporary Philosophy in Focus* sailekoa dugu Barry Smithen atondu duen hau. Searleren lan eremu garrantzitsuenetakoak eztabaidagai hartuta, 10 filosofoen artikulua bana jasotzen du, argitaratzailearen sarrera orokorrarekin batera. Searleren hizkuntzaren filosofiaz idazten dute Nick Fotionek («Hizketa-ekintzetatik hizketa jarduerara»), Leo Zaibertek («Asmoak, promesak eta obligazioak») eta François Recanatik («Adierazgarritasunaren mugak»); gogoaren filosofiako Searleren proposamenak eztabaidatzen dituzte Neil Mansonek («Kontzientzia»), Fred Dretskek («Hautematearen Intenzionalitatea»), Brian O'Saughnessyk («Zentzumen-datuak») eta Jousef Moura-

lek («Gela txinatarraren argudioa»); Joelle Proustek ekintzaren filosofiaz idazten du («Ekintza»). Hauetaz gain, Searlek azken urteotan jorratu duen gizartearen ontologiako kontu bati heltzen dion George Fletcherren lana dakar («Legea»). Searle filosofo analitikoa dela esan dugu, eta hala da. Baina ez da filosofo analitiko ohikoa; besteak beste, filosofo «kontinentalekin» eztabaidatzeko lanak hartu dituelako, Jacques Derridarekin, bereziki. Horixe eskaintzen dio Kevin Mulliganek liburuako azken kapitulua dena: «Searle, Derrida eta fenomenologiaren xedeak».

Liburuaren atzeko azalak besterik iradoki dezakeen arren, hau ez da Searleren lan «osoari» buruzko liburu bakarra, eta ez da azkena izango. Artikuluak oso interesgarriak dira, baina osorik hartuta ez diete Searleren lan eremu bakoitzari arreta bera eskaintzen eta ez dira era sistematikoan aurkezten. Lastima da, baita ere, artikulua guztiak filosofoen esku uztea. Searleren filosofiaz haragoko eraginaren ideia egokiagoa izango genuke alor horietako autoreen eskutik. Baina hori, azalak azal, agian, beste liburu bat izango litzateke.

*Kepa Korta*

13. James McGilvray (arg.), *The Cambridge Companion to Chomsky*. Cambridge: Cambridge University Press, 2005, 335 + ix or.

Giza eta gizarte zientzietan, bizi-rik dauden pentsalarien artean, inork gutxi merezi zuen *Cambridge Companion* bat Noam Chomskyk adina. Zaila da puzten Chomskyk hizkuntzalaritzan eta, oro har, kognizio zientzietan eragindako bulkada iraultzailearen garrantzia. Chomskyk eremu horietan egindako lanaren oihartzuna aurki dezake hemen irakurleak. Baina bada gehiago. Hizkuntzaz eta gogoaz egindakoarekin batera, ezaguna da —ezagunagoa, seguru asko, gizarte zabalean— Chomskyk politikan egindako lana. Hiru alor horietan banatu ditu argitaratzaileak liburu honetako artikulua. Hizkuntzalaritzan, Neil Smith, David Lightfoot, Howard Lasnik, Laura-Ann Petitto, B. Elan Dresher eta Lila Gleitman eta Cynthia Fisherren lanak jaso ditu, Chomskyren ikuspegi orokorra nahiz sintaxian eta fonologian egindako ekarpenak jorrazten dituztenak, eta baita biologia edo hizkuntz jabekuntzari buruz dauzkan

proposamenak ere. Bigarren zatia giza gogoari buruzkoa da eta lau artikulua jasotzen ditu. Norbert Horsteinek Chomskyren arrazionalismoa aurkeztzen du; Paul Pietroski and Stephen Crainek horri lotutako innatismoa; Akeel Bilgrami eta Carol Rovane semantikari buruzko ikuspegi chomskyarra defendatzen dute eta liburuaren atontzaileak, James McGilvrayk, innatismoa eta biologia ditu aztergai. Hirugarren zatiko lau artikuluek Chomskyren ikuspegi politikoa dute eztabaidagai. Milan Rai, James Wilson, Irene Gendzier eta Jean Bricmontek ikuspegi politiko horrek bere moralitatearekin duen zerikusia, giza banakoak estatuarekin eta korporazioekiko erlazioan duen tokia edo AEBen nazioarteko politika eztabaidatzen dituzte. Liburu oso interesgarria da hau, Chomskyk alor horietan guztietan egindako proposamen nagusien berri izateko.

*Kepa Korta*

## Hezkuntza

14. Ángel Huguet Canalis & José María Madariaga Orbea, *Fundamentos de educación bilingüe*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2005, 313 or. (DZ)

Hezkuntza elebidunaren kontzeptua eta estatu espainolean dauden lurralde elebidunen egoerak ondo ezagutzeko oso egokia da liburu hau. Egileak Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak dira, zehazki Bilboko Irakasle Eskolako irakasleak. Liburua sei ataletan banatuta dago. «Hizkuntza: debate iraunkorraren iturria» da lehenengo kapituluaren izenburua. Alde batetik, hizkuntzaren eta gizartearen arteko harremana aztertzen dute, hizkuntza gizartearen bateratzaile eta zatitzaile gisa. Bestaldetik, hizkuntza-

ren eta pentsamenduen arteko oinarriko teoriak aztertzen dituzte psikologiaren ikuspuntutik; besteak beste, Piaget, Vygotsky, Chomsky eta Watsonen teoriak aurkeztuz. Bigarren kapituluak, «Elebitasuna: oinarriko printzipioak», Sánchez Carrioni jarraituz, elebitasun indibiduala, elebitasun soziala eta lurralde-elebitasunaren azalpena ematen dute. Hurrengo kapituluak, hezkuntza elebidunaren definizioa eta mota desberdinak azaldu ondoren, hezkuntza elebiduna sustatzeko dauden murgiltze programen azterketa

sakona egiten dute, horiek ikasleengan eduki ditzaketan eraginak, baldintzak, emaitzak eta ondorioak kontuan hartuz. Laugarren kapitulua liburuaren atal nagusia da, bertan estatu espainolean dauden hezkuntza elebidunaren hainbat sistema aztertzen dituztelako. Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian, Valentzian, Balear Uharteetan, Galizian, Aragoian eta Asturiasen azkeneko hogeitau urteetan izan den egoera elebidunak nahiko argi aurkezten dituzte. Azken aurreko kapituluan, izenburuak adieraz-

ten duen bezala, analisi psikologiko batekin topo egiten dugu, bertan, estatu espainolaren adibideak jarriz, ikaskuntza elebidunean jarrerek duten garrantziaz hitz egiten digutelako. Liburua hezkuntza elebidunari buruzko gogoetarekin bukatzen da, berriro ere, estatu espainolean gaztelaniarekin batera elkarlotzen den beste hizkuntza batez jabetzen diren autonomia erkidegoen egoerak kontsideratuz.

*Leire Alviz*

**15. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila, 2004-2007 *Basque Vocational Training Plan*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2005, 133 or. (DZ)**

Ingelesez idatzita dagoen liburua da. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu izan zenaren, Anjeles Iztueta, aurkezpenaren ondoren, liburua sei ataletan dago banatuta: sarrera eta 2004. urtetik 2007. urtera lanbide heziketari buruz Euskadin aurrera eraman den planaren lau lerro estrategikoak eta horren finantziazioa. Sarrera lau atalez osatuta dago, lehenengo bi atalen bidez plan honen oinarri eta ezaugarri nagusiak azaltzen zaizkigu grafikoz beteriko orrialdeen bidez. Ondoren, 2005. urteko lanbide heziketaren egoera aztertuz, ondorio bakarra azpimarratzen da: ezagutzaren bide egokien iristeko prestakuntza eta ikaskuntza sistemak moldatu behar direla. Sarrerari bukaera emateko, laugarren atalean, liburuan aztertzen diren lau lerro estrategikoen azalpen txikia ematen da. Ondoren, lehenengo lerro estrategikoaren azterketa dator. «Gaitasunaren eta lanbide heziketaren sistema integratuak eguneratu eta hobetu» izenburua da. Bertan lanbide heziketari eta gaitasunari buruz dauden zentroak, behatoki sistemak, euskal batzordea, institutua, agentzia... aztertzen dira, orri osoa betetzen duten hainbat taularen bidez, lerro hori osatzen duten hamabi helburu estrategikoak

azaltzeko. Bigarren lerro estrategikoa «Kalitatea euskal lanbide heziketan» da. Kalitatea aztertzeko hiru ebaluazio mota aurkezten dira: lanbide heziketa sistemaren ebaluazioa, prestakuntza zentroen ebaluazioa eta prestakuntza beraren ebaluazioa. Ondoren, lehenengo lerroarekin egin den bezala, lerro honen zortzi helburu estrategikoak aztertzen dira. Hirugarren lerro estrategikoa «Euskal lanbide heziketaren berrikuntza bultzatu etengabeko hobekuntza-prozesuaren bidez» da. Berrikuntza teknologikoa, elkarlana, prestatzaileen profesionaltasuna eta lanbide heziketa inguruko Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntza zentroaren garrantzia azpimarratuz, lerro honen hamabi helburu estrategikoak azaltzen dira. Azkeneko lerro estrategikoa «Informazio eta komunikazioaren teknologia berriak euskal lanbide heziketan» da. Bertan, e-learning sistemaren aurkezpen txikia egin ondoren, lerro honen hamabi helburu estrategikoak azaltzen dira. Bukatzeko, 2004, 2005, 2006 eta 2007. urteetan plan hau aurrera eramateko erabilitako eta erabili beharreko diru guztiaren analisisa egiten da.

*Leire Alviz*

## Ezagutza eta Antolakuntzaren Gizarte eta Ekonomia Estudioak

16. «Capital social, innovación organizativa y desarrollo económico», *Ekonomiaz – Revista Vasca de Economía*, 59, 2005, 359 or.

Xabier Barandiaranek (Soziologia, Deustuko Unibertsitatea) koordinatutako ale monografiko honen helburua hau da: «kapital soziala» kontzeptua argitzea eta kapital mota horrek garapen ekonomikoan izan dezakeen eragina aztertzea.

Produkzio faktoreen artean, kapital fisikoarekin eta giza kapitalarekin batera, gero eta gehiago «kapital sozialaz» hitz egiten da. Robert Putnam, Pierre Bourdieu eta James Coleman izan ziren kontzeptu hori erabiltzen lehenetakoak. Egun, Banku Mundiala bezalako erakundeen diskurtsoetan, kapital sozialaren garrantzia behin eta berriro aipatzen da.

Liburu honetako egile gehienek kapital soziala konfiantzan eta elkarrekotasunean oinarritutako harreman sozial horizontalekin lotzen dute. Kapital soziala elkarrekintzaren, sareen ondorioa da, eta baloreetan, praktiketan eta harremanetan mamitzen da. Askotan kapital sozia-

la lurralde bateko kulturarekin, tradizio zibikoarekin edo identitatearekin loturik egoten da, eta ingurune instituzionalak eta agente publikoek kapital soziala pizten edo bideratzen lagun dezakete.

Ale monografiko honetako egileak honako galdera honi erantzuten saiatzen dira: kapital sozialak laguntzen al du enpresen arteko (batez ere enpresa txiki eta ertainen arteko) kooperazioa bultzatzen, transakzio kosteak murriztuz, eta ezagutza partekatzea eta ezagutza berria sortzea eta aplikatzea (berrikuntza) ahalbideratuz? Bilduma interesgarri honetako artikulua (horietako batzuk Euskal Herriari buruzkoak, edo EAEko egileek idatziak) irakurri eta gero, honako hau esan genezake: neurri batean bai, baina bakarrik neurri batean. Oraindik lan asko dago egiteko fenomeno hori argitzeko eta espikatzeko.

*Mikel Olazarán*

17. Patxi Juaristi, *Gizarte ikerketarako teknikak*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2003, 258 or.

UPV-EHUko Politika eta Administrazio Zientzien Sailean irakasle (eta mementu honetan Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Zuzendari) den Patxi Juaristiren liburu honetan, gizarte zientzien (batez ere soziologiaren eta politika zientziaren) ikerketa teknika desberdinak modu txukun eta argi batez aurkezten dira. Oinarria honako hau da: gizarte zientzien batasuna beren metodoan datzala, hau da, teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak elkarren osagarri direla.

Liburuan honako teknika hauek aztertzen dira: saioa, inkesta, sakoneko

elkarrizketa, bizitza historiak, eztabaida taldeak, delphy, behaketa zuzena, eduki azterketa eta iturri ez-zuzenen azterketa. Hori baino lehenago, aurreneko kapituluaren ikerketa prozesuaren faseak aztertzen dira, eta azkenekoan gizarte zientzietan erabilgarri izan daitezkeen hainbat programa informatikoren berri ematen da.

Kapitulu guztietan, han-hemen, egileak egindako ikerketetatik ateratako adibide argigarri eta interesgarriak erabiltzen dira, eta metodologiako liburuetatik hartutako aipamen interesgarriak tartekatzen dira. Liburua oso ongi

idatzita dago, argitasunez eta zehaztasunez. Eta hori ez da batere erraza, gaiaren zabaltasuna eta zailtasuna kontuan hartuta. Gainera batasun maila handia

mantentzen da, gizarte tekniken artean dagoen osagarritasunaren seinale. Ekarpen handia beraz.

*Mikel Olazaran*

18. Douglass C. North, *The Process of Economic Change*. Princeton, New Jersey: Princeton University Press, 2005, 187 or.

Liburu hau «Ekonomia instituzional berria» deituriko ikuspegiaren aitzindarietako bat den Douglass Northen azkeneko lana dugu. Bertan, aldaketa ekonomikoaren prozesua edo, hobeki esateko, aldaketa sozialaren prozesua ulertzeko eta esplikatzeko garatu duen marko kontzeptuala aurkezten digu. Northen teoriaren oinarrian bi kontzeptu daude: sinesmenak eta instituzioak. Gizarte batean, nagusi diren eragileen sinesmenak eta ideiak instituzioetan gauzatzen dira (arauak, inzentiboak, egiturak, norma informalak, kontrol sistemak), eta instituzio horiek ekonomiaren eta politikaren funtzionamendua determinatzen dute. Instituzioen markoan politikak formulatzen dira; politika horien ondorioz errealitatea aldatzen da; eragileen arteko lehian aldaketak egon daitezke; pertzepzio edo sinismen berriak sor daitezke... eta berriro aldaketaren prozesua martxan jartzen da, etengabe, modu

inkremental batez. Aldaketa prozesua ikaskuntza prozesua litzateke, entseiu-errore prozesu bat, ziurgabetasunez jositia.

Marko hori erabiliz, Northek men-debaldeko aldaketa prozesua azaltzen du, hau da, aro modernoaren sorrera, bilakaera eta ondorioak. Ondorio nagusietako bat honako hau da: ingurune fisikoa «konkistatu» den neurrian, ingurune berri bat sortu da, aukera berriak, baina baita arrisku berriak eta oso handiak dakartzana ere: giza ingurunea. Lau mila milioi urteetan garatutako gizaki ehiztari eta biltzaileen garunarentzat aldaketa handia izan da hori, eta, ikasketa prozesu erraldoi horretan, herri (instituzio-egitura) batzuek beste batzuek baino efizientzia adaptatibo hobea erakutsi dute, eta ondorioz emaitza ekonomiko eta sozial hobeak lortu dituzte.

*Mikel Olazaran*